

## KUDEAKETA-POLITIKA

Meatze zaletasunean oinarrituz, balio erantsizko produktu kate baten garapenean lehena izan nahi duen Talde Industrial bat gara, gure eraginaren lekuetan. Aldi berean gure bezeroak, gizarte ingurunea, langileak eta akziodunak gogobetetzea bideratuta egonik.

Morteros Calhidro S.L.-ko zuzendaritzak politika honen erreferentzi markoaz baliatuz eta sorturiko betebeharretatik helburuak zehazterakoan, honako baloreak kontuan izango ditu:

- **BEZEROA:** Gure negozioaren funtsa da. Hori dela eta egunero saiatzen gara bere konfiantzazko hornitzailea izaten.
- **ERRESPECTUA:** Talde lanean aritzen gara, egiak, legeak, konpromisoak, ideiak eta kulturak egoki duen errespetua bermatuz.
- **KALITATEA:** Gure bezeroen beharrak eta itxaropenak gogobetetzen ditugu bere erabilertarako behar dituzten produktuak, zerbitzuak eta laguntzak eskainiz.
- **NEURRITASUNA:** Gure jarduera era soilean garatzen dugu, bitarteko egokiekin balio erantsia sortuz.
- **ERANTZUKIZUNA:** Ekimenarekin jokatzeko, arazoei aurre egin eta irtenbidea aurkitzeko, horretarako dagozkion erabakiak eta erantzukizunak gure gain hartuz, banaka edo elkarrekin.
- **IRAUNKORTASUNA:** Erakunde sendo eta eraginkor bat eraikitzen dugu, luzaroan iraun eta hazteko inbertituz, gure ezaguera eta eskarmentua garatuz eta zabalduz.

Etengabeko hobekuntza baten lorpenerako talde honetako partaide guztien ekintza eta elkarlanaren irizpideak, beti ere helburu marko baten barnean oinarrituz, honako hauek dira:

- Pertsonen ezagutza eta potentzialen kudeaketa.
- Prozesuen identifikazio eta ebaluazioa, jarduerak eragindako ingurune-inpaktuak eta lan-arrikuak kontuan hartuz, une ahulak antzeman eta hauen hobekuntza prozesuetan beharrezko diren ekintzak eta kontrolak ezarri, modu honetan, kudeaketa sistemaren eta, laneko segurtasun eta osasunaren gauzatzea hobetuz.
- Gure jarduerak aurrera eramaterakoan izendatuak ditugun baliabideak modu egokian erabiltzea.
- Arriskuak eliminatu edota gutxitu Lan Segurtasun eta Osasunean, gerta daitezkeen istripu, inzidente edota gaixotasun profesionalak ekiditeko.
- Kudeaketa sistema eta estrategien bitartez geure bezeroen beharrak betetzeaz gain, ingurumenaren protekzioa, kutsadura, eta lan egoera seguru eta ongizateak bermatu lesio eta osasun deterioaren prebentzioan. (lan istripuak, ustekabeak, lan gaixotasunak eta kalte materialak aurreikusi, eta aldi berean egoera arriskutsuen eragileak detektatu.)
- Produktuen kalitate, inpakto ambientalak eta, jarduerak sortutako prebentzio kalteak eta osasun hondatzeekin erlazionaturiko aplikagarri diren legezko betekizun eta onetsitako bestelako betebeharrarekin aurrera egiteko erantzukizuna.
- Kudeaketa gestioa garatzeko ekintzetan oinarritutako parte- hartze eta kontsulta bultzatu langile eta beraien ordezkarien artean.

Pertsonak enpresako osagairik garrantzitsuena izanik, politika honen ondorioz sortzen diren helburuak lortzearren, zuzendaritzak aintzat hartuko ditu giza taldearen profesionaltasuna eta partehartzea. Eta hori horrela gauzatu dadin, erantzukizun osoa hartuko du langileriarri jakinarazten baita hauen inplikazio eta prestakuntza ere.

Morteros Calhidro S.L.-ko zuzendaritzak bere gain hartzen du politika hau ezarri eta gauzatzen egiten behar duen ahalegina beharrezko diren baliabideak jarritz. Aldi berean, politika honen izaera publikoa, eskuragarria eta eguneratua dela ziurtarazten du.

Gorka Argaiz Etxeberria  
Morteros Calhidro S.L.-ko gerentea  
Urnieta, 2019ko abendua